



Lankidetzarako akordioa

Zarautzen, 2016eko uztailaren 11n

I. Aldeak

Batetik,

FUNDACIÓN AZTI – AZTI FUNDAZIOA, eta fundazioaren ordezkaria: Rogelio Pozo jauna (NAN zenbakia 15940877 Z), bertako Zuzendari Nagusi gisa,

Eta bestetik,

Xabier Txurruka, Zarauzko Udaleko Alkatea, izaera honekin jardungo duena bere eginkizunen jardunean, eta 2016ko ekainaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren arabera.

II. Azaldu dute

1. Azti – Tecnalia irabazi asmorik gabeko fundazioa da, arrantzaren eta elikagaien sektorearen garapen sozial eta ekonomikoarekin konprometituta dagoena, bai eta itsas ingurumenaren eta natur baliabideen babesarekin ere. 1981etik ari da enprekin, erakundeekin eta herri administrazioekin hainbat proiektu garatzen, eta bere xede sozialarekin lotutako teknologia eta laborategi zerbitzuak ematen.
2. Bereziki, eta bi aldeei interesatzen zaien arloari dagokionez, eragiketa-ozeanografiako proiektuetako ikerketa eta garapen teknologian eta laborategi zerbitzuetan nabarmentzen da AZTI – Tecnalia, eta zehazki kostaren eta itsasertzaren kudeaketan.
3. Zarauzko Udalak bere helburuen artean dauka bertako ingurune naturalak eta, bereziki, hondartza eta itsasertza babestea, eta horiek era egokian kudeatzea. Horrela lortuko baitu udalerriaren garapen iraunkorraren alde egitea.



4. Zarauzko Udalak 2008an Azti – Tecnaliari esleitu zion, lehiaketa ireki bidez, "Itsasertzeko dinamikaren azterketaren proiekturako laguntza teknikoa".
5. AZTI – Tecnaliak itsasertzaren bideo-monitorizaziorako sistema jarri zuen, aurrerantzean "KOSTASystem sistema edo estazioa" deituko zaiona.
6. KOSTASystem sistema edo estazioa instalatua zegoenean Udalak eta AZTI – Tecnaliak Lankidetzak akordioa sinatu zuten, 4 urteko epealdirako. Epealdi hori 2014ko abuztuan agortu zen.
7. Zarauzko Udalak eta AZTI – Tecnaliak interesa azaldu dute elkarlanean jarraitzeko eta horregatik hitzarmenari jarraipena ematea erabaki dute.

III. Klausulak

1. Xedea

- 1.1 Hitzarmenaren xedea izango da bi aldeen arteko lankidetzaren araubidea ezartzea.
- 1.2 Zarauzko Udala da estazio horren jabea.
- 1.3 Aldeen arteko lankidetzak orokorrean honako hauek hartzen ditu:
 - a) Zarauzko KOSTASystem estazioaren mantentze-lanak egitea eta lur okupazioa bermatzea.
 - b) Informazioa, dokumentazioa eta aholkularitza elkarren artean frukatzea.
 - c) Proiektu horiek elkarrekin komunikatzea jendeari.
 - d) Eta, modu ireki batean, aldeek edo merkatuak eskatu ahala, bi aldeentzat interesgarriak izan daitezkeen beste horrenbeste ekintza ere egitea.



2. AZTI – Tecnaliaren betebeharrak espezifikoak

- 1.1 AZTI – Tecnalia arduratuko da KOSTASystem estazioak lortzeko eta transmititzeko, ekipoa eta horien softwareak ondo funtzionatzeko mantenu eta konpontze lanak egiteaz.
- 1.2 AZTI – Tecnalia arduratuko da KOSTASystem estazioak – ateratako irudien datu-baseari eta Zarauzko hondartzari eragin diezaiokkeen itsas klimaren parametroen datuei euskarria emateaz. Horretarako une bakoitzean beharrezkoak diren datu-iturriak erabiliko ditu.
- 1.3 AZTI- Tecnalia arduratuko da, KOSTASystem estazioaren bitartez landutako datuak eta informazioa herritarrei hedatzeaz. Horretarako gutxienez urtean behin AZTI- Tecnaliak herritarren artean hedatzeko informazio landuko du txosten batean.

Txosten horrek jaso dezake hondartzako eta itsasertzeko dinamikaren inguruko informazioa, aurrez AZTI- Tecnalia eta Udalak bien artean erabakitako gaiari lotuta. Kasua balitz, gai horiek Azti-Tecnaliak izan ditzakeen finantzaturiko proiektuen arabera ere erabaki daitezke. Txosten horien adibide ezberdinak izan daitezke: estazioaren erabileraren urteko txostena, uda garaian jazotako erreskateen datuak, Zarauzko hondartzan izandako aurreko denboraldiko gora beheren berri, itsats ertzeko arriskuen garrantzizko datuak edo hondartzako erabiltzaileen kopuruaren jarraipena;

Zarauzko Udala ahaleginduko da informazio horri ahalik eta hedapen zabalena emateaz, herritarren artean sentsibilizazio hori txertatzeko.

- 1.4 AZTI- Tecnaliak, sistemak eduki ditzakeen beste hainbat aplikazioen berri emango dio udalari eta aplikazio berri horien elkarlana partekatuko dute bi erakundeek. Adibidez: salbamendu ekintzekin lotutako aplikazioak, erabiltzaileen kopuruaren kontaketarako aplikazioak, itsas aldako arriskuen jarraipena egiteko aplikazioak, batez ere gainezka egiteko indizeak, eta abar.



3. Zarauzko Udalaren betebeharrak espezifikoak

1.1 Zarauzko Udala arduratuko da KOSTASystem estazioaren kokapen fisikoa bermatzeaz, bai euskarri dorreari dagokiona eta baita instalazioak hartzen dituen txabolari dagokiona. Horretarako Zarauzko Udalak jabeekin harremana egin eta errenta ordainduko du. Txabola hori udalak mantenduko du.

1.2 Halaber, Zarauzko Udalaren ardura izango da argindar hornidura bermatzea.

4. KOSTASystem irudien eta bere ondorioen komunikazioa, zabalkundea eta konfidentzialtasuna

1.1 Bi aldeek eskubidea aitortzen diote elkarri KOSTASystem estazioaren bidez lortutako irudiak, datuak, emaitzak edo irudi horietan oinarritutako txostenak komunikatu edo zabaltzeko.

1.2 Edozein komunikazio edo zabalkunde egin aurretik beste aldearekin egiaztatu beharko da, eta beti irekita egongo da komunikazioak elkarrekin egiteko aukera.

1.3 Lankidetzak Akordio honen bidez bi erakundeek aukera izango dute KOSTASystem estazioaren bidez lortutako irudiak beraien web-orrietan argitaratzeko.

1.4 Zarauzko KOSTASystem estazioaren bidez lortutako datu, emaitza eta informazio guztiak bi aldeek jabetzako informazio konfidentzial gisa tratatuak izango dira, eta soilik beste aldearen adostasunarekin ezagutaraziko zaizkie hirugarrengei.



- 1.5 Bi aldeek beraien eskuetan dagoen guztia egingo dute, baimendu gabeko inork eskura ez dezan informazio konfidentziala, eta informazio konfidentzial hori inork zabal ez dezan.

5. Kontratuaren iraupena eta suntsitzeko arrazoiak

- 1.1 Esparru-kontratu hau goiburuan adierazitako egunean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du 4 urtez. Dena den, kontratua luzatu ahal izango da, urtez urte, bi aldeen artean idatzizko akordioa egonez gero.
- 1.2 Hitzarmen hau suntsitzeko arrazoia izango da bertan jasotako klausulak ez betetzea.

6. Auzien ebazpena.

- 1.1 Kontratu honen interpretazioari, baliagarritasunari, izaerari, irismenari, edukiari, burutzapenari, iraungipenari edo suntsipenari buruz sortzen den edozein auzi edo desadostasun konpontzeko, errekamazioa egin duen aldeak beste aldeari jakinaraziko dio eta fede oneko elkarriketak egingo dituzte irtenbide bat aurkitzeko.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek, ondorio bakarrarekin, kontratu honen bi ale sinatzen dituzte goiburuan adierazitako leku eta egunean.

Rogelio Pozo Carro jauna

AZTI - Tecnalia

Xabier Txurruka

Zarauzko Udala



ZARAUZKO UDALA



Lankidetzaren akordioa Zarauzko Udala-
ren eta Azti – Tecnaliaren artean

2015H7990009-010-001.doc